

# 1- IRAKURRI TESTUA ARRETAZ.

## MIRENEN LIBURUAK

Miren, Jana eta Nahia liburutegian mahai baten inguruan eseri dira.

Mahai gainean kolore askotako liburuak jarri dituzte eta hitz egiten hasi dira.



**Hiru neskak poz-pozik daude eta oso gustora  
elkarrekin hitz egiten.**

**Shilin neskeengana hurbildu da:**

- Egunon neskak! Zer duzue hor, mahai  
gainean?- esaten die Shilinek.**
- Gure liburu berriak.- erantzuten diote neskek.**
- Liburu berri hauek irakurtzeko dira?-  
galdetzen die Shilinek.**
- Ez, ez dira irakurtzeko, pegatinak itsasteko  
eta margozteko dira.**
- Oso ondo! Holakoak dira, nire gustuko  
liburuak.- dio Shilinek.**
- Zuri irakurtzea ez zaizu asko gustatzen ezta  
Shilin?- dio Mirenek.**



## 2- AUKERATU ERANTZUN ZUZENA

- 1.- Miren \_\_\_\_\_ dago.
- 2.- Neskak \_\_\_\_\_ daude.
- 3.- Neskak \_\_\_\_\_ inguruan eseri dira.
- 4.- Liburuak \_\_\_\_\_ jarri dituzte.
- 5.- Liburuak \_\_\_\_\_ dira.

## 3- AUKERATU EGIA EDO GEZURRA DEN.

Neskak jolastokian daude.

Neskek goxokiak dituzte.

| EGIA | GEZURRA |
|------|---------|
|      |         |
|      |         |

**Shilinek neskekin hitz egiten du.**

**Shilini irakurtzea asko gustatzen  
zaio.**

|  |  |
|--|--|
|  |  |
|  |  |